


Artea suntsitzeko arrazoiak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1914ko martxoaren 10a. Mary Raleigh Rochardson (1889-1961) sufragista eta WSPUko kidea National Galleryra sartu zen, soinekoan laban bat gordeta zuela. Diego Velazquezen *Ispiluko venus* ezagunaren parera iritsi zenean, mihisea zazpi aldiz sastakatu zuen, guardiek geldiarazi zuten arte.

Ez zen artelan baten ez lehen eta ez azken eraso izan. Halako kasuetan prentsak bandalismoaz hitz egin ohi du, baina ez da hitz zuzena. Bandalismoa ondarea inongo "arrazoirik" gabe suntsitzea da; ekintza horien atzean arrazoi erlijioso, politiko, sozial... bat dagoenean, aldiz, ikonoklasia esaten zaio.

Kontzeptu hori nagusiki erlijioari lotuta egon da historikoki. Antzinako Egipton, Akenaton faraoiak Amon jainkoaren irudiak suntsitu arazi zituen Aton jainkoaren gurtza ezartzeko. Halaber, Akenatonen agintaldia amaituta, ordena zaharra berrezartzeko, faraoi ohiak utzitako ondarea suntsitzen ahalegindu ziren; baina ez zuten guztiz lortu, hain zuzen, bere garaiko artelan batzuek iraun zutelako, esaterako, Akenatonen emazte Nefertitiren bustoa.

Ziurrenik, historiako ikonoklasia erlijioso ezagunena Bizantzioko VII. mendeko irudi kristauen aurkako erasoaldia izan zen, baina gerora ere kristauek, katoliko nahiz protestanteek, irudi erlijiosoak suntsitzeko ekintzak bultzatuko zituzten.

Arrazoi politikoek ere bultzatu dute ikonoklasia. Frantzian, 1789ko iraultzaren ondoren, Antzinako Erregimenaren sinboloak desagerrarazi nahian, eliza



Velazquezen *Ispiluko venus*, sufragistek sastakatu.

gotikoak 24 ordutan suntsitzeko makina eraikitzea pentsatu zuten -azkenean gauzatu ez zen arren-. Eta oraindik ere buruzagi politikoek estatuak suntsitu ohi dira han eta hemen.

Baina duela 110 urte sufragistek egingoak aldaketa ekarri zuen ekintza ikonoklastetan. Ordura arte, artelanak berak -eta horiek irudikatzen zutena- suntsitzea zen helburua. Eta garaiko prentsak ere hala interpretatu zuen koadroaren aurkako eraso: venus biluzia emakumeak objektutzat jotzea sinbolizatzen omen zuen eta horregatik suntsitu nahi izan zuten. Richardsonek berak ukatu zuen hori; koadroa ez zen jomuga, bitartekoa baizik. Sufragisten kausak arreta izan zezan sastakatu zuen venusa.

Azken urteetako artelan ezagunen

aurkako erasoak ere atentzioa bereganatzea izan dute helburu. 2022ko urrian Londresko National Galleryn bertan ekintzaileek zopa bota zioten Van Gogh-en *Eguzkiloreak* lanari, inflazioaren aurka protesta egiteko; koadroari ez zion kalterik eragin. Eta berriki ekintzaile ekologistek Da Vinciren *Mona Lisa*-ren aurkako enegarren ekintza egin dute, horri ere zopa botata; ekintzaileek ederki zekiten, babes-egitura medio, zopak ez zuela koadroa ukitu ere egingo.

Eta, hala ere, komunikabide askok bandalimotozat jotzen dute. Ahaztu edo ezkututzen dute, ordea, artelanen espoliatzeak, merkatu beltzak eta espekulazioak ondare artistikoari askoz kalte handiagoa eragiten diotela, ekintza jakin horiek baino. ●

Lehenengo taberna

Mesopotamiako Lagash hiriaren aztarnen artean, egungo Iraken, taberna baten egitura ikertu du estatubatuar eta italiar ikerlari talde batek. 2019tik jardun dute proiektuan, duela 4.900 urteko zazpi gelako egitura aztertzen: tabernak labea zeukan, *zeer* izeneko hozkailu modukoa, sukaldia, biltegiratzeko ontziak, jangela irekia... Lipidoen azterketaren

bidez, ontzietako janari arrastoak identifikatzen ari dira orain, baina dagoneko ondorioztatu dute orain arte aurkitutako tabernarik zaharrena ez zela eliteentzako jatetxea; Holly Pittman indusketa zuzendariaren hitzetan: "McDonald's modukoa zen, zerbitzu azkarra emateko aurrez prestatutako janaria zeukana". ●



LAGASH PROIEKTU ARKEOLOGIKOA